


Enea eta esnea



Gaur gure lagunak mendira joan dira. Orain baserri batean daude. Baserrian animalia asko daude. Ahuntz bat dago eta adar zorrotzak ditu. Izaskun ez da beldur eta zapi gorri bat du eskuan.

-E! E! Etorri hona! Etorri hona! -dio Izaskunek.

Zaldi bat dago eta oso polita da. Zaldiak 'Azkar' du izena. Etxekoandreak ontzi bat du eskuan. Ontzian esnea dago. Izaskunek esnea ikusi du eta galdetzen dio etxekoandreari:

-Non dago behia?

-Barruan dago. Etorri nirekin! -erantzuten dio etxekoandreak.

Izaskun eta Janire barrura sartu dira eta barruan baserritarra eta behia daude.

-Esnea gustatzen zaizue? -galdetzen die baserritarrak.

-Bai, niri asko gustatzen zait -erantzuten du Janirek.

-Oso goxoa da -dio Izaskunek.

Bapatean, Gontzal korrika-korrika sartu da kortan. Atzean erle bat dago:

-Ai! Ai! Kontuz, kontuz! Erle bat, erle bat! -oihukatzen du Gontzalek.

Orduan erleak behia ziztatu du eta MUUU! Egiten du behiak, eta baserritarra eta ontzia airetik bota ditu.

-Ai ama! Baina zer da hau? -oihukatzen du Izaskunek.

Erlea kalera joan da, baina Izaskun blai eginda dago. Lagunak barrez ari dira.

-Busti egin zara! Busti egin zara! Ha, ha, ha, ha! -esaten dute guztiek.



ERLEA ETA ESNEA

Eman erantzuna galdera hauei:

1. Nora joan dira gure lagunak?

2.- Zer dago baserrian?

3.- Nork ditu adar zorrotzak?

4.- Nolakoa da zaldia?

5.- Nork du eskuan esnea?

6.- Nortzu daude korta barruan?

7.- Nola sartu da Gontzal kortan?

8.- Zer egin du erleak?

9.- Nork oihukatzen du?

10.- Nola dago Izaskun?

Erlea eta esnea (Hiztegia)

Behia	Esnea
Ardia	Baserria
Ahatea	Baserritarra
Ahatetxoa	Etxekoandrea
Zaldia	Eztia
Untxea	Zorrotza
Esnea	Goxoa
Adarra	Liburua
Mokoa	Luzea
Hegoak	Nork?
Buztana	Zer egun?
Hankak
Eztia
.....

ZENBAKIAK (0-tik 20-ra)

1	Bat	11	Hamaika
2	Bi	12	Hamabi
3	Hiru	13	Hamahiru
4	Lau	14	Hamalau
5	Bost	15	Hamabost
6	Sei	16	Hamasei
7	Zazpi	17	Hamazazpi
8	Zortzi	18	Hamazortzi
9	Bederatzi	19	Hemeretzi
10	Hamar	20	Hogei



Basatxoritxo

Basatxoritxo mutur luzea
ez joan zerura bila
aingerutxorik behar ez gero
horra hor neure mutila
Bere muxua
elurra da ta
sua bihotz eta espainak
berton urturik
biziko dira
nire bularra eta zainak

